

Bidasoarako konponbideak

BIDASOAREN ARROKO URAREN FOROA

Argitaratzailea:

Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa, CRANA
Nafarroako Uraren Foroa

Bidasoaren Foroaren laguntza teknikoa:

Concha Fernández de Pinedo, Alberto Jiménez, Cristina Alfonso,
Mónica Migueltorena

Gure esker ona ondoko talde eta pertsoneri:

AEMS Ríos con vida-Nafarroa, Cederna-Garalur garapen agentzia,
Uraren Euskal Agentzia (Uragentzia), Alejandro Arizkun, ANAPAM
Asociación Navarra de Pescadores a Mosca, Iturri-Ederra Elkartea,
Arantzako Udala, Baztango Udala, Aitor Bazterrika, Berako Udala,
Lesakako Udala, BKZ Nafarroa Abentura, Marin Zubiko Zentral Hidroelektrikoa
Narbarteko Kontzejua, Bertizko Partzuergo Turistikoa, José Ignacio Iruña,
Monika Redondo, EHNE sindikatua (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna),
UAGN sindikatua, Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea, Urberri Elkartea
eta Bidasoaren foroarekin elkarlanean aritu diren gainontzeko lagun guztiei

Diseinua eta maketazioa:

HEDA Comunicación

Imprimatzailea:

DNA Industria Gráfica S.A.

Sustatzailea:

Nafarroako Gobernua

Babeslea:

“La Caixa” gizarte-ekintza

Nafarroako Gobernuko Turismo Zuzendaritzak utzitako argazkiak

Iruña 2008

Bidasoarako konponbideak

Azken urtebetean, Urari buruzko Esparru Zuzentaraua eta Nafarroako Uraren Estrategia aplikatzeko, Bidasoaren egoerari buruzko eztabaidan aritu gara gobernua, mankomunitateak eta udalak, bai eta arrantzaleak, abeltzainak, ekologistak, enpresaburuak eta gizarte erakundeak ere; zehazki, Uraren Foroaren baitan, Bidasoak zer arazo dituen zehaztu eta 63 neurri proposatu ditugu, egungo egoera hobetzeko; orain, neurriak agintariei helaraziko zaizkie, Iparraldeko Arroko Plan Hidrologikoa definitzeko, bai eta gobernuaren plan sektorialak definitzeko ere.

Nafarroako Gobernuak bultzaturik, 2007ko martxoan hasi zen Bidasoa ibaiaren azparrako Uraren Foroan parte hartzea bideratzeko prozesua, eta bederatzi hilabetez iraundu; guztira, zortzi bilera egin dira. Foroan Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hirurogei gizarte erakundek eta eragilek parte hartu dute.

Haien iritziak aurkituko dituzu argitalpen honetan, bai eta proposatu dituzten neurriak ere, Bidasoa aldeko ibaien eta erreken egoera ekologiko ona lortze aldera.

Uraren kultura aldatu beharra dago, gauza asko lortzeko: ibaiari eta bere ekosistemari kalitatea itzultzeko; ur-emaeria bermatzeko; etxeetako eta enpresetako ur hornidura ziurtatzeko. Beraz, ura zentzuz kudeatu eta erabili behar dugu. Eta gogoratu beharra dago ibaia ez dela ur hutsa, bestelako gauzak ere bai: esaterako, ibaiertzak eta ibilguak, landareak eta animaliak, akuiferoak eta uharrak.



AURKIBIDEA

Bidasoaren arropa: datuak	5
Arazoetatik... ..	6
...Konponbideak bilatzera	7
Foroaren iritzia	8
Neurriak banan-banan	14
Erakunde partehartzaileak	19

BIDASOAREN ARROA: DATUAK

> **Luzera:** 66 km. Horietatik, 14 km-tan Baztan deitzen zaio, eta gainerako 55 km-tan, berriz, Bidasoa; azken hamarrak Nafarroatik kanpo egiten ditu. Erratzun sortzen da eta Dronoz Mugairitik aitzinera Bidasoa erratan zaio. Nafarroa barnean, Enderlatsaraino iristen da eta, handik aurrera, muga markatu eta Bizkaiko itsasoan (Kantauri itsaso) itsasoratzen da, Irun, Hondarribia eta Hendaia artean.

> **Ibaiak eta errekek:** 105 erreka iraunkor ditu; guztien artean, ia 500 kilometro egiten dute. Bidasoaren ibaiadar nagusia Ezkurra da eta erreka hauetatik ere ura hartzen du: Tximista, Onin, Zeberia, Marín, Artesiaga, Ezpelura... eta bertze aunitzetatik.

> **Azalera:** 700 km² (30 ez daude Nafarroan).

> **Biztanlegoa:** 22.000 lagun inguru. Herri handienak Bera, Lesaka, Etxalar, Doneztebe eta Elizondo dira.

> **Ur-emaria.** Ur-kontsumorik ez balego, urtero batez beste 900 hm³-ko ekarpena eginen luke (29 m³/segundoko); hau da, Nafarroako baliabide guztien ia % 9. Batez besteko emaria, neurtutako erregimen errealean, 5,15 m³/segundoko da Oharriren, eta 26 m³/segundoko, Enderlatsan.

> **Eskaria.** Ekainetik irailera izaten da ur eskaririk handiena. 2002ko kontsumo osoa Kantauri aldeko arroan: 7 hm³/urteko (% 43 hiri kontsumoa da; eta % 57, industrial).


> **Naturgune bereziak:** Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL) 4 dira eta laurak zuzenean daude lotuta ibai-esparruekin: Artesiagako BIL, Bertizko Jaurerriaren BIL, Belateko BIL eta, azkenik, Bidasoa ibaia eta Aritzakun-Urritzateko BIL.

> **22 kontrol puntu** daude uraren kalitatea neurtzeko, Nafarroako Gobernuaren edo Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoaren mendean.

> **Urtegiak:** San Anton eta Domiko izenekoak Irun eta Hondarribia urez hornitzeko erabiltzen dira; Mendaur eta Leurtza, berriz, energia hidroelektrikoa sortzeko.

> **28 zentral hidroelektriko.**

> **Araztegiak.** Hondakin urak arazteko 8 araztegi daude; zahazki, araztegiak arroan bizi den jende guztiaren % 73 hartzen dute.



ARAZOETATIK...

Uraren Foroak egindako diagnosiaren arabera, hona hemen Bidasoaren arroko arazo nagusiak:

- > **Ur hornidura ez dago bermatua.** Urte sasoi jakin zenbaitetan, arazoak izaten dira herri batzuk urez hornitzeko. Hona hemen arrazoiak: gorabeherak izaten dira kudeaketa administratiboan, industria eta hiri arloko eskariak gora egiten du eta ez dago garatua ura aurreztu eta zentzuz kontsumitzeko kultura.
- > **Ura ez da kontuan hartzen** Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hirigintza planifikazioan.
- > **Industria, abeltzaintza, nekazaritza eta hiri arloko isuriek eragindako kutsadura.** Horrekin batera, gabeziak daude saneamenduan, ez dago behar adinako zaintza eta kontrolik, eta herritarrek ez daude oso sentzibilizatuak. Erreka hauek, konparazio batera, kutsatuak daude: Intzola, Ibardin, Onin, Artesiaga, Gilenea, Zia eta Orabidea.

> **Ekosistema eta ibaiertzak egoera txarrean daude:** zaborrek, eraikinek eta nekazaritza sailak ibaiertza hartua dute, ibaiertzeko basoak gaizki daude eta ibaiaren jarraitasuna hautsita dago.

> Erakunde eskudunek **irizpide desberdinak dituzte uholdeen aferari dagokionez.** Lurralde planifikazioak ez ditu uholde-zelaiak kontuan hartu. Ibilgu eta ibaiertzak gaizki mantendu izanak, kanalizazioek eta klima-aldaketaren afera aintzat ez hartzeak arazoa larriagotu dute.

> **Ez dago emaririk,** ura zentral hidroelektrikoetara eta beste erabilerara batzuetara (baserriak, etxebizitzak, punpatzeak, iturbegietatik ura hartzea) bideratzen delako.

> **Eraginak arrantzan,** behar adinako emaria ez dagoelako, zenbait tartetan uraren tenperatura handitu delako eta fauna espezie batzuk ugaritu direlako.



Hona hemen Bidasoaren Foroak nabarmendutako neurri batzuk, arroaren egoera hobetzeko:

Behar adinako ur kantitatea bermatzea, ibai-ekosistema garatzeko:

- > Zaintza, kontrol eta jarraipen programak ezartzea, ur-emari ekologikoei eusteko.
- > Zentral hidroelektrikoen ur erauzketak garaian garaiko emarira moldatzea.

Uren kalitatea hobetzeko:

- > Kutsagarriak izan daitezkeen guneak begiratu eta haien jarraipena egitea; isuriaren gaineko araudi indarduna beteazteko behar diren mekanismoak ezartzea.
- > 2.000 biztanletik beherako herrietan araztegiak eraikitzea.

Ibai-ekosistemaren kalitatea hobetzeko:

- > Tarterik hondatuenetan, ibilguak eta ibaiertzak berreskuratzeko plana egitea.
- > Ibaiak garbitu eta mantentzeko lanak egitea.

Uraren erabilera iraunkorra sustatzeko (eraginkortasuna eta aurrezpena):

- > Ura eramateko sarea berrikustea, ur galera garrantzitsuak egon daitezkeelako.
- > Neurri teknologikoak aplikatzea, ura eraginkortasunez erabiltzea bermatzeko; eta horren ondorioz, etxean, nekazaritzan, abeltzaintzan eta industrian ura aurrezteko bermatzeko.


- > Ura kontsumitzeko tarifa berriak ezartzea eta neurri gabeko kontsumoa zehatzea.
- > Uraren erabilera iraunkorra kontuan hartuko duten hirigintza planak garatzea.

Kudeaketa eta kontrola hobetzeko:

- > Erakunde bat eratzea, ura batera kudeatzeko; Nafarroako Gobernuak inplikazio handiagoa izan beharko luke.

Sentsibilizazio maila handitzeko:

- > Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak eta programak garatzea.
- > Eskolan bultzatutako programa, txikitatik ibaia eta bere ibaiertzak zaindu beharrez kontzientziazteko.



FOROAREN IRITZIA

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako uraren kudeaketari eta erabilerari lotuta dagoen pertsona aunitzek bederatzi hilabete baino gehiago eman dituzte ibaiak eta haren errekek dituzten arazoei buruzko eztabaidan. Eztabaida lekua Bidasoaren Foroa izan da eta,

era berean, erakunde eskudunek arazo horiek konpontzeko hartu beharko lituzketen neurriak zehaztu dituzte. Lan horren ondotik, galdetu diegu haien iritziz zein den funtsezko neurria edo jarduketak, arazo horiek guztiak moldatzeko. Hona hemen erantzunak.

DEÑE ABUIN ARRASATE

Lesakako Udala 1. alkateordea

>>>

“Bidasoaren Ur Mankomunitatea eratzearen aldekoa naiz”

Partehartzea bideratzeko foroetan agertu diren arazo guztiak ikusita, zaila da, egia erran, neurri bakarra aipatzea; baina, ordezkarri politikoa naizen aldetik, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako eskualde osoa bilduko lukeen “Ur Mankomunitatea” sortu beharko litzateke. Mankomunitate horrek



urari lotuta dauden kontu guztiak kudeatu eta kontrolatu beharko lituzke: hornidura eta kalitatea bermatu beharko liriateke araudi baten bidez, eta inguru osoko

ordenantzek horretan bat eforriko beharko lukete: hau da, uraren prezioa, isuriak kontrolatzea, eta era berean, eskualdeko gizarte eragile guztien bidez, herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina handia egitea.

JORGE TENIENTE VALLINAS

AEMS-Ríos con Vida, Nafarroa, koordinatzailea

>>>

“Emari ekologikoa kontrolatzeari emanen nioke lehentasuna”

Zaintza, kontrol eta jarraipen programa ezartzeari emanen nioke lehentasuna, emari ekologikoei eusteko.

Orain, Bidasoaren arroko zentral hidroelektriko guztiek abenduaren 20ko 344/1990 Foru Dekretua bete behar dute, hau da, Minizentral



hidroelektrikoak instalatzeko proiektuei buruzko dekretua, eta dekretuak dio Q330 deritzon gutxienezko emaria errespetatu behar dela, ibaiak dakarren emariak horixe ahalbidetzen duenean.

Batez bestekotzat hartutako urtean, 330 egunez gainditutako emaria da Q330. Gainera, indarrean dagoen Foru Dekretu horretan erraten da zentrala 12 orduz jarraian geldiarazi beharko dela, aurreko 15 egunetan ibaiak gehienez emari minimo hori, Q330 emaria, ekarri badu.

Hemendik gutxira, Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak ingurumen-emariak ezarri beharko ditu instalazio guztietarako, Urari buruzko Esparru Zuzentaruarekin bat, eta emari horiek Q330 deritzonak baino askoz ere handiagoak izan beharko dute; izan ere, aipatu emari horrek erran nahi du Bidasoa agorraldi-egoeran dagoela urtean 9 hilabetez Doneztebetik behera.

FRANCISCO JAVIER ARRAZTOA ZUBIRI

Marin zubiko zentral hidroelektrikoa

>>>

“Heziketa funtsezkoa da ura aurrezteko”

Nire iritziz, Bidasoaren arroak duen benetako arazoa da euri gutxiago egiten



duela. Azken urteotan euriak murriztu dira. Nolanahi ere, nire iritziz, ez daiteke neurri bakar bat aipatu, gure arro osoak dituen arazoak moldatzeko. Jakina, niretzat, garrantzitsua

da ura aurrezten ikastea; heziketa bultzatu beharra dago. Nire ustez, ura erabiltzen dugun guztiok horretaz kontzientziatu behar dugu: erakundeek, enpresek, etxeek, eskolek. Bertzaldetik, ez litzateke alde batera utzi behar, nik uste, urtegiak eraikitze aukera.

SANTIAGO ALDAKO ALEMAN
Baztango Udala, alkateordea

>>>

“Guretzat, hornidura bermatzeari eman behar zaio lehentasuna”

Guretzat neurri batek du lehentasuna, hots, Ur Horniduraren Plan Zuzentzaileak dakartzan jarduketak berrikustea proposatzen duen harek eta, horrekin batera, aztertu beharko litzateke zer-nolako alternatibak dauden, agorraldi luzeetan hornidura ziurtatzeko. Administrazio publikoa garen aldetik, Baztango Udalean arras kezkatuak gabilta ura kudeatzeko manieraz. Guretzat, ura funtsezko ondasuna da, behar-beharrezkoa edozer jarduera egiteko, bai eta Baztango azukideen eguneroko bizitzarako ere.



Horregatik, uste dugu administrazio publikoek ur hornidura eta kalitatea bermatu behar dituztela. Hara Baztanen zer gertatzen den; Nafarroako tokirik

euritsuena izanik ere, agorraldian arazoak izaten dira, zenbaitetan, ur horniduran; horregatik, administrazio maila guztien laguntza eskatzen dugu, behar adina neurri hartu eta azken uda hauetan izan diren egoerak konpontzeko. Horrekin batera, ura ahalik eta hobekien kudeatu beharko litzateke, hau da, ura aurreztu, eta eraginkortasunez eta zentzuz kontsumitu beharra dago; hortaz, ura kudeatzeko manera hobetzen saiatuko gara udal mailan.

ITXASO ALEMAN DANBORIENA
EHNE-Nafarroa nekazaritza sindikatuko teknikaria

>>>

“Neurriek interes ekonomikoan gainetik egon beharko lukete”

Hein handiagoan edo txikiagoan, neurri guztiak dira inportanteak; baina horretarako, neurriak paperetik aplikaziora eraman behar dira, eta zentzuz, zinez eta



arretaz aplikatu behar dira. Hori gizarreak egin behar du, oro har, bai eta administrazio bakoitzak ere. Neurriak abian jartzeak era guztietako interes ekonomikoan gainetik egon beharko luke, kasu honetan Bidasoa ibaia berreskuratzeko helburua beteko bada.

Laburbilduz, Bidasoarako (Batasunaren Intereseko Lekua baita) eta bere ibaiadarretarako, garrantzitsuena da abeltzaintzatik datozen isuriak saihestea eta, bereziki, hiri eta industria arloko isuririk ez izatea; horretarako, ura arazteko sistemarik eraginkorrenak paratu behar dira, teknologia aurreratuarekin bat. Hortaz landara, azpiegiturek ahalik eta eraginik txikiena izan beharko lukete Bidasoan; konparazio batera, N-121 errepidean egiten ari diren lanak. Eta niretako, funtsezkoa da uraren eskuragarritasuna kontuan izatea, horrenbertze urbanizazio, familiabakarreko etxebizitza eta igerileku eraikitze baimenak ematerakoan, baita lorategiak (partikularrak nahiz publikoak) ureztatzerako baimenak ematerakoan ere. Gero eta ur gehiago erabiltzen da eta horrek erran nahi du gero eta ur gehiago ateratzen ari garela bere ibilgu naturaletik, eta horrela ura zikintzen dugu, edoña are okerragoa dena, ura kutsatzen dugu. Egina dago, hortaz, urak Bidasoaren arroan duen egoerari buruzko gogoeta; paperean adostuak daude foroan agertu ziren neurriak, eta orain, zain gaude ea Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak neurri horiek behar bezala bideratzen dituen, administrazio eskudun guztiekin koordinaturik.

ALEJANDRO ARIZKUN
Erabiltzailea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea

>>>

“Ibaiari buruzko ikuspegi berria”

Nire iritiz, badago helburu garrantzitsu bat Bidasoa ibaia egokiro tratatzeko; hau da, ibaiarekin lotuta dauden eragile guztien artean (auzokideak, abeltzainak, enpresak, erakunde publikoak) ondoko lehentasun hauek kontuan hartuko dituen ikuspegi zabaldu beharko litzateke:

1. Ibaia bizi-iturria da jendearentzat, bai eta haren esparruan bizi diren espezie bizidun guztientzat ere.
2. Ibaiak urez hornitzen gaitu, herritarren oinarriko beharrik asetzeko (edaria, garbitasuna...).
3. Baliabide produktiboa da (ureztapena, ukuiluak garbitzea, turbina elektrikoak eragitea...).



Zoritarrez, ez dugu inolara ere ibaiari buruzko ikuspegi hori. Bide horretan aitzinera egiteko, lehendabizi arras baliagarria izanen litzateke pertsona interesatuen arteko bilerak aldi berean egitea, ideia horiek zabaltzeko, proposamenak egiteko, arazoan jarraipena egiteko, ibaiari egindako erasoak salatzeko...

VICENTE AROCENA BIURRARENA

Arantzako Udala, Zinegotzia

>>>

“Herritarrak hezteko eta sentsibilizatze programak ezarri behar dira”

Uraren Foroan partehartzaila bakoitzak askatasunez aipatu eta azaldu dituen arazoei aurre egiteko, jarduketa programa bat ezarri behar da, nik uste, epe labur, ertain eta luzera begira ezarri ere. Horrela, argi eta garbi finkatu beharko litzateke hezkuntzaren bidez zer helburu lortu nahi dugun gure ikastetxe, eskola eta institutuetan; bertzalde, foki eta foru administrazioak inplikatu beharko liriateke, bai eta gizarte mugimenduak nahiz herritarrak, oro har, ere.



Badago arazo batzuei epe laburrean heltzeko aukera; esaterako, hezkuntzari eta informazioari, hala ikastetxeetan nola gizartean, oro har. Garbitasunari, emari ekologikoari eta faunari dagokienez, epe laburrean emaitzak ikus genitzake, nik

uste. Gero, jardunaldietan azaldu zen bezalaxe, Bidasoara urak isurtzen dituzten gure erreka txikien emariari dagokionez, konponbideak zailagoak dira. Foru administrazioak konponbide horien kostua hartu beharko luke bere gain.

Duela urte gutxi arte heziketa eta informazioa hondakin isurpenetara mugatzen ziren; orain isilpeko ehizara, eta ehiza eta arrantza elkarreterako ehiztariengana beraiengana zabaldu behar dira, fauna harrapatzeko arauak errespetatzeko. Neurri garrantzitsua ere bada herri eta urbanizazio guztietan araztegiak eraikitzea, eta aldiaren behin, manfenimendu egokia egitea.

Garapen iraunkorra bultzatu behar dugu. Oraindik, garaiz gabiltza gure ibaiak salbatzeko, horien artean, Bidasoa; bereziki, hainbat eskualde lotzen dituelako: Baztan, Maldarreka, Bertizarana, Bortzirriak, Irun, Hondarribia eta Iparaldeko alde batzuk.

ARANTXA ARREGI

Cederna-Garalur, garapen agentea

>>>

“Hornidura arazoak agerian gelditu dira”

Nik uste dut eskualdean lan garrantzitsua egin dela eta neurri proposamenak dira horren erakusgarri. Neurri guztiak dira garrantzitsuak baina interesgarrienetako bat ur horniduraren beharra da, nik uste; ura ondasun publikoa baita eta gero eta gutxiago dago. Agerian gelditu da udalerrri batzuek gaur egun duten ur eskasia eta, hemendik gutxira, gainerako udalerrriek arazo hori bera izanen dute. Horrenbestez, uraren kudeaketa hobetu beharko da. Gainerako neurriak ere garrantzitsuak dira.



Denak elkarri lotuta daude; beraz, horrek erran nahi du natur baliabideak nahiz giza baliabideak koordinatu behar direla. Zenbaitetan, giza eta politika

arloan erantzukizun handia duten eragileak dira; beritze zenbaitetan, lurraldearen parte aktiboak dira (esate baterako, Cederna-Garalur), bai eta lurraldean egiten diren jardueren parte aktiboak ere. Azken finean, nire ustez, koordinazioa hobetu behar da, baliabideak ahalik eta hobekien erabili eta eskura ditugun giza eskubide ugariak aprobetxatu. “Ibaiei aurrez aurre begiratu behar diegu, haiei bizkarra eman gabe”.

ISIDRO BAZTARRICA MUTUBERRIA

UAGN nekazaritza sindikatua

>>>

“Sentsibilizazio ekintzak eta abeltzainendako laguntzak proposatzen ditugu”

Lur gaineko eta azpiko urak kutsatzen dituzten iturrien artean, azkenaldi honetan animalia-jatorria duten ongarri nitrogenatuak neurri gabe edo era desegokian erabiltzea dago (mindak); hori nabarmentzen ari da. Arazo horri ez zaio Bidasoaren arroan lehenatasuna ematen; eta



hori baliteke izatea abeltzainen artean dagoen sentsibilizazioagatik; izan ere, inbertsioak egin dituzte arazoa ahalik eta gehien murrizteko eta etorkizunean moldatu ahal izateko.

Abeltzainak sentsibilizatze ekintzak egitea proposatzen dugu UAGNen eta, dirulaguntzen bidez, animalia-jatorria duten ongarriak (mindak eta simaurra) ahalik eta hobekien banatzeko makineria erostea, produktua lursailaren azalera osoan egokiro banatzea bermatuko duena. Horrela, txikiagoa izanen da inguruneari eraginak sortzeko arriskua.

AITOR BAZTERRIKA ZELAIETA

Basozaina, Baztango Udala

>>>

“Toki entitateek kudeaketa eta hornidura hobetu behar dituzte”

Ez du uste neurri bat bereizteko gauza naizenik, egungo arazoak moldatzeko aukeratu diren guztien artean. Toki Entitateek lehentasunez neurri batzuk hartu beharko lituzkete, Hirurteko Planen barnean: uraren erabilera iraunkorra, uraren kudeaketa hobetzea, arro honetako herriak urez



hornitzeko sarea hobetzea. Nafarroako Gobernutik jasotzen diren kontusail ekonomikoak plan horiendako erantzuna izanen dira. Gainerakoan, ibaiko fauna, landaredia eta

ekosistema hobetzeko jarduketak dira itxuraz neurri garrantzitsuenak, Ibilguak eta Ibaiertzak berreskuratzeko planaren barnean. Bertzalde, ibaietako isuriak garbitzeko antolatzen diren boluntarioen ekintzak kontzientziazioa zabaltzeko bidea izan daitezke.

VICENTE GARRO LANZ

Berako ehiza eta arrantza elkarte. Arrantzalea

>>>

“Errekei beren berezko ibilian joaten utzi behar zaie”

Bidasoaren arro nafarrean -23.000 biztanle- euri aunitz egiten badu ere, Beran akuifero bat erabiltzen da hiri kontsumorako, eta hori ezin da erraz ulertu. Halaber, iturburuak eta bertze ur-harrera batzuk neurri gabe erabiltzen dira, eta horren ondorioz, egoera larria da; izan ere, erreka aunitz bizirik gabe gelditu dira eta oso murriztuak, eta horrek jakina bere eragina du gure ibai nagusian; Bidasoan, alegia.



Eta hori guztia ez da biztanle kopurua handitu izanaren ondorioa, aski egonkorra izan baita azken 60 urtean, ezta kontzesio hidroelektriko berriak ematearen ondorioa ere, gehienak iragan mendearen

hasmentakoak baitira. Ez dugu ahazten asko handitu dela biztanle bakoitzeko kontsumoa, baina ez ateka gaizto honetara iristeko adina; eta egoera txar-ixarra da, baliabidea oso gaizki kudeatu delako.

Horren aldean, Irun eta Hondarribia -75.000 biztanle- lasai ederrean bizi dira Bidasoaren ibaiadar baten goialdeko ura bakarrik erabilia; hau da, ura urtegien bidez aprobetxatzen dute. Konponbideen artean, Leurtzako eta Trinitateko urtegiak erabil litezke; behar bezalako altuera baitute arroko ia herri guztietan ur-biltegi inudeak paratzeko. Horrela, iturburuak eta errekek mendietan beheiti jaitziko lirakeke naturak egindako ibilguetan behera. Beste konponbide batzuk ere egonen dira, baina premiakoa da neurriak hartzea.

IZASKUN GOÑI RAZQUIN

Bertizko Partzuergo Turistikoa. Gerentea

>>>

“Ibaiarekin zuzenean harremanetan sartu beharra dago”

Gure ustez, funtsezkoa da arro osoan ibaia kudeatu eta babeseko politikak era mankomunatuan lantzea, irizpide iraunkorrekin bat.

Beste kontu garrantzitsu bat herritarrek sentsibilizatzea da, gure ibaia natur baliabide aberatsa den aldetik. Horretarako, oso garrantzitsua da hartan sartzea. Urrutitik



ikusita, ibaia paisaiaren osagai hutsa da. Antolatzen diren sentsibilizazio jardueren bidez [esaterako, ibai bazterrak garbitzeko egunak], ibaiarekin

harremanetan sartzen gara; horren bidez, ibaia hortxe dagoela ohartzen gara eta huraxe zaindu beharra sentitzen dugu. Ildo berean, ibaiko jarduera jostagarriek ibaiari buruzko ikuspegi berria eskaintzen dute, ibaiarekin zuzenean harremanetan sartuz. Horregatik, erabilera jostagarriak ematearen aldekoak gara gu, bai hemengo herritarrentzat, bai turistentzat ere, baina beti ibaia errespetatuz, ibaian ahalik eta eragin txikiena duen jarduerak eginez, eta herritarrek ibaiaren balioaz jabetzen laguntzeko asmoz. Guretzat, natur baliabidea izateaz gain, ibaia lan egiten dugun eskualdea egituratzen duen ardatza ere bada, bai eta destinu gisa identifikatzen gaituena ere. Alde horretatik, etorkizunean Bidasoaldea kontzeptua landu behar dugu eta hori, zalantzarik gabe, lagungarri gertatuko da ibaiari balio emateko.

ITZIAR HUARTE GARMENDIA

Narbarteko Kontzejua. Zinegotzia

>>>

“Emari ekologiko berriak definitu behar dira”

Nire ikuspuntutik, bileretan landu diren helburuak lortzeko neurri guztiek garrantzi berezia dute Bidasoaren azpiarroan. Denak



estuki lotuta daude eta, alde horretatik, zaila da zaila denez, bat bereiztea. Zinegotzia naizen aldeak, gizarte gogoan eta gizartearen ur erabilerak gogoan, nik uste dut, ibaia eta

bere ekosistema garatzeko behar adinako ur kantitatea bermatzeko helburuaren barnean, hauxe dela neurririk interesgarriena:

Iparaldeko Konfederazio Hidrografikoak ezar ditzala Uraren Esparru Zuzentaraua betetzeko behar diren emari ekologiko berriak; horretarako, eta planifikaziorako, eskualdeak aurrera begira izan dezakeen hazkunde hartu behar da kontuan, bai eta landa eremuko gizarteak egiten dituen erabilerak ere.

Nire ustez, gizarteak aintzat hartzeko moduko neurria da eta, aldi berean, beharrezkoa eskualde honetan, eskualdearen kokapen geografiko estrategikoa ikusita eta, horren ondorioz, poliki-poliki egiten ari diren aldaketengatik. Bertzaldeak, eta lehenbiziko ideiarekin lotuta, uraren erabilera egoki, kontrolatu eta iraunkorrak etorkizunean konpondu eginen ditu behar berrietatik etor daitezkeen arazo asko, unean uneko inguruabarrengatik gure ohiturak bat-batean aldatu behar izan gabe.

MIKEL IBARROLA MANTEROLA

Bidasoa Kultur Zerbitzuak S.L., Turismo Aktiboa

>>>

“Ibai ekosistemaren garapena bermatu behar da”

Bidasoaren Uraren Foroan erabakitako agiriaren 1. helburuan bilduta dauden neurri guztiek dute lehentasuna niretzat. Erran nahi baita, ur kantitate nahikoa bermatu behar da, ibaia eta bere ekosistema garatzeko. Helburu hori lortze aldera, zentral hidroelektrikoen ur



erauzketak garaian garaiko ibai emarira egokitu behar dira. Zentral guztiek emari ekologikoa errespetatu behar dute. Beraz, Iparaldeko Konfederazio

Hidrografikoak emari ekologiko berriak ezarri beharko ditu, Uraren Zuzentaraua betetzeko. Horra hor Bidasoaren Foroak proposatu dituen neurri batzuk. Nire ustez, lehenbiziko helburu hori betetzeko proposatu diren bertze neurri batzuk lortzea ekarriko luke berekin.

JOSU IRATZOKI AGIRRE

Berako Udala, Alkatea

>>>

“Ur gutxiago kontsumitu beharraz kontzientziatu behar dugu”

Nik uste dut Bidasoaren Uraren Foroan adostu diren neurriak oso lotuta daudela elkarren artean. Lan taldean egindako eztabaida eta adostasun lan hori lehenbiziko pausoa da, ibaiari buruzko ikuskera berrirantz jotzeko. Proposamen guztien artean, zaila egiten zait bat nabarmentzea. Sentsibilizazio kontuetan, herritarrak sentsibilizatzea niretzat oinarritzko eta lehentasunezko neurria da, ur gutxiago kontsumitzeko; baina, benetan diot, nik uste dut guztien artean, huraxe zailena dena gauzatzeko. Epe luzera egin beharreko



lana da, erakundeok gure gain hartu behar duguna eta herritar guztiengana iritsi behar duena.

Beste neurri batzuk berehalakoan hartu behar dira, epe

laburrera aplikatzen saiatzeko: esaterako, emari ekologikoa errespetatzea. Emari hori definitu eta betearazi behar da. Egoera tamalgarrira iristen ari gara. Murgesko zentrala da horren adibide garbia; handik pasatzen naizen bakoitzean, tristatu egiten naiz, ibaia ia urik gabe baitago presatik zentralak ura askatzen duen fokiraino. Eta orain ere, neguan, ia ez da urik pasatzen.

JOSÉ IGNACIO IRUSTA DE HUEGUN

Erabiltzailea (Baztan)

>>>

“Interesen oreka eta zintzotasuna funtsekoak dira”

Nik uste dut interesen orekan oinarritu behar dugula, eta gauzak ongi eta zintzoki egin behar direla. Bidasoaren arroan badira oso ongi kontserbatuta dauden errekek; era mugatuan aprobetxatzen dira eta horrek ez dio kalterik egiten ez haien balio estetikoari, ez ekologikoari, ezta hidrikoari ere. Bestalde, hemen badugu emari nagusi bat, zeinean erabileren ugarienak biltzen baitira, eta arrisksutsuenak ere bai, baldin eta ez



badakigu behar bezala kudeatzen; bereziki, industriari eta hirigintzari dagokienez. “Behi sakratuaren ekologismoa” (leku babestuetan egiten dena; Bertizen, esaterako) ez da jarraitu beharreko irizpidea, gero beste leku batzuetan muturrerainoko aurrerapena justifikatzeko. Natura kudeatu eta menderatu beharra dago, beti egin den bezala, baina zentzuz, aurreikuspenez, orekaz, estetikaz, zintzotasunez eta gauzak ongi eginez.

MITXEL PETRIZAN

Urberrri Elkarte

>>>

“Ibaiari berezko maneran joaten utzi behar zaio”

Interesgarria da Uraren Esparru Zuzentaruak eskaturik herritarrek parte hartzeko egin den prozesua; dena den, beharrezkoa da ur kontutan eskumena duten administrazio guztiek prozesuarekin bat jokatzera eta haren oinarri funtsezkoenetako bat kontuan hartzea: hots, uren egoera ekologiko ona kontserbatzea edo



berreskuratzea. Horrek garrantzi nabarmena du, etengabe aipatzen baitira errekek eta inguru hezeak erregulatzen obrak. Urberrri-n uste dugu ibaiari ahalik eta modurik berezkoenean ibiltzen utzi behar zaiola, eta gizakiak ahalik eta gutxien esku hartu behar duela. Hori ez zaio aurrerabideari kontrajartzen,

urak aprobetxatu behar direlako, baina erabilerak iraunkorra izan behar du.

Hauek dira ibaiaren inguruko mugarririk garrantzitsuenak:

1 Emariak: emariei eusteari lotutako kontu oro berrikusi behar da eta errekek eramaten dituenen antzeko emariak ezarri behar dira.

2 Ibaiaren jarraitutasuna: ibaiak oztupoaz eta lubetaz beteta daude. Pentsatu beharra dago gauza horiek guztiak kentzea; izan ere, leku baterako ona denak eragin kaltegarria du ibaian behera. Garrantzitsua da ibaiari uholde-zelaiak itzultzea.

3 Ibaiertzeko landaredia: landarediak sekulako garrantzia du eta zortasunak errespetatu behar dira. Jakina, badago zer egin handia alor horretan; batetik, daukaguna errespetatuz, eta bestetik, hondatutako arteetan landareak landatuz; jakina, hemengo landareak jarri behar dira [sahatsak, haltzak, lizarrak,...]

Laburbilduz, neurri bakoitzari buruzko galdera egin behar diogu gure buruari, ea uren egoera ekologiko ona hobetuko ote duen; eta, bestela, ez da hartu behar.

MÓNICA REDONDO SALGADO

Erabiltzailea, biologoa

>>>

“Emari ekologikoa aztertu eta errespetatu behar da”

Zaila gertatzen zait neurri bakarra bereiztea. Nire iritziz, arroan dauden zentral hidroelektriko ugariak sorrarazten



dituzte gehienbat Bidasoaren arazoak, ur-emarian gorabehera handiak eragiten dituztelako. Horren ondorioz, gutxi gelditzen da ibaiaren ibilbide naturaletik; beraz,

niretzat, neurririk garrantzitsuen emari ekologikoarekin eta hori beteaztearekin lotutako kontu oro litzateke.

Bertze alde batetik, herritarrek kontzientziaztea aitzineko neurria bezain garrantzitsua da. Inguru honetan, ibaiak beti toki nabarmen-nabarmena izan du, baina horrexegatik, hain zuzen ere, jendeak pentsatzen du beti berdin jarraituko duela, baina hori ez da inola ere egia. Inguru honetan ez da sekulan ur arazorik izan, baina gero eta eskari handiagoa dago, gero eta lorategi gehiago daude. Nire ustez, garrantzitsua da jendeak uraren garrantziaren berri izatea eta ura zaindu beharreko ondasun arras preziatua dela ohartzea.

NEURRIAK BANAN-BANAN

1. HELBURUA | Ibai-esparrua eta bere ekosistema garatzeko behar hainbateko ur kantitatea bermatzea

1. Zentral hidroelektrikoetatik egiten diren ur erauzketak garaian garaiko ur-emarira egokitzea.
2. Zentral guztiek ur-emari ekologikoa bete behar izatea.
3. Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak behar diren ur-emari ekologiko berriak ezartzea, Uraren Esparru Zuzentaraua betetzeko.
4. Beste kontzesio batzuetarako ur erauzketak garaian garaiko ur-emarira egokitzea.
5. Urtegirik eraiki behar ote den ikertzea edo egun daudenak ustiatzea, ur-emariak bermatzeko.

2. HELBURUA | Uren kalitatea hobetzea

6. 2000 biztanle baliokidetik beherako herrietan araztegiak eraikitzea.
7. Euri sareak eraikitzea, halakorik ez dagoen tokietan.
8. Saneamenduko kondukzioak ibaietatik kanpo paratzea.



3. HELBURUA | Ibai-ekosistemaren kalitate hidromorfologikoa (ibilguak eta ibaiertza) hobetzea

3.1. Ibai ibilguak eta ibaiertzak lehengoratzea

9. Ibaiko presak "iragazkortzeko" jarduketak garatzea, ur-emari ekologikoak aurrera jotzeko aukera izan dezan.
10. Ibaian obrak eta jarduketak egiteko garairik egokiena zein den ikertzea; betiere, atzemandako arazoak larriagotu ditzaketen data sentikorrek alde batera utzita.
11. Erabiltzen ez diren eta historikoki interesik ez duten oztipoak eraistea.
12. Obra, arau-hauslearen kontura egitea edo eraistea, isuna jarri ordez.
13. Ibaiak garbitzeko eta mantentzeko lanak egitea.
14. Pistak mantentzea, materialik ibaira ez joateko.
15. Hiriko hondakin solidoak, tamaina handikoak eta obra-hondarrak biltzeko zerbitzuak hobetzea, hondakin horiek leku egokian uztea errazagoa izateko eta ibai aldean ez uzteko.
16. Legez kanpoko obra-hondakindegia lehengoratzea.
17. Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak ibaiertzak lehengoratzea xede duten jarduketak sustatzea (landatutakoa ez mozteko eta huraxe ez aprobetxatzeko konpromisoa har dezatela).
18. Ibaiertzetan zuhaitzak landatzea; haltzak, batez ere. Laguntzak %100ekoak.

19. Tarterik hondatuenean, ibai-ibilguak eta ibaiertzak lehengoratzeke plan bat egitea.
20. Ibai-esparrua berez lehengoratu dadin sustatzea (hartuak izan diren ibai-lurrak, haietan hainbat erabilera egiteko).
21. Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak ibaia enborrez garbitzeko izapideak arintzea, enborrek ur ibilia eragozten edo oztopatzen badute, eta uholdeak gertatuz gero, kalteak murrizteko.

3.2. Ibai bazterrak antolatzeari eta okupatzeari buruzko alderdiak (uholdeak)

22. Ur jabari publikoaren eremuak berreskuratzea.
23. Ibaiertzeko lurra berreskuratzea, erosketaren edo desjabetzearen bidez.

3.3. Fauna eta landaredia

24. Zentral hidroelektrikoetako ubideen sarreretan gailuak paratzea, fauna ez sartzeko.
25. Lertxun, ubarroi eta ahate populazioen, eta haien ondorioen, jarraipena egitea, haien populazioak kontrolatzeko neurriak planteatzeko.
26. Kanpotik sartutako espezieak ezabatzeke programa.
27. Kontrol programak egitea, espezie aloktonoak ez sartzeko.

4. HELBURUA | Uraren hiri, industria eta nekazaritza erabilera iraunkorra sustatzea (ura aurreztea eta eraginkortasunez erabiltzea)

28. Instalazio industrialetan, ur zirkulaziorako zirkuitu itxiak aplikatzea.
29. Eraikuntza berrientzako laguntzak ematea, euri-urak berreskuratzea eta berdeguneak ureztatzeko.
30. Neurri teknologikoak aplikatzea, ura etxean eta industrian eraginkortasunez erabiltzeko eta, horren ondorioz, aurreztea bermatzeko.
31. Administrazioak ura eraikin publikoetan, eskoletan, etab. aurreztea.
32. Kondukzioei buruz: kondukzioen diseinua eta gauzapena zaintzea, eta jarduketak epe luzerako aurreikuspenen arabera planifikatzea.
33. Sarearen egoera berrikustea, %40tik %60ra arteko galerak egon daitezkeelako.
34. Kondukzioak mantentzea eta estaltzea.
35. Urak eramateko sareak modernizatzea, ihesik ez izateko.
36. Administrazio guztietan, uraren erabilerari lotutako kultura politiko berria egiazki ezartzea.
37. Uraren erabilera iraunkorra, diseinuan bertan, kontuan hartzen duten hirigintza planak garatzea.
38. Lege bidez, fabrikatzaileek sistema eraginkorragoak egitea, ura aurreztea bermatzeko.
39. Ur kontsumorako tarifa berriak ezartzea; eta, era berean, neurri gabeko kontsumoa zehatzea.

5. HELBURUA | Kudeaketa eta kontrola hobetzea

5.1. Eskumenei dagokionez

40. Toki entitateek Bidasoa ibaiko uraren kudeaketa hobetzea, koordinaziopean, eta Bidasoako Eskualdearen batasun-sentimendua gogoan.
41. Erakunde bat sortzea (mankomunitatea edo antzekoa), baterako kudeaketa egiteko eta Nafarroako Gobernuak inplikazio handiagoa izatea. Erakundeak lurraldea hartu behar du kontuan, bai eta lurraldearen ezaugarriak eta egoera ere, eta ez soilik lege teoriakoak.
42. Ibaiaren kudeaketan eta erabileran eragina duten erakunde guztien artean irizpideak adostea.
43. Zentralak desjabetzea eta publiko bihurtzea, dagozkien kalte-ordainak ordainduta. Uraren eta energiaren kudeaketak publikoa izan behar du.

5.2. Ur kantitateari dagokionez

44. Zaintza, kontrol eta jarraipen programa ezartzea, ur-emari ekologikoak mantentzeko.
45. Erabiltzen ez diren kontzesioak berrikustea eta baliorik gabe uztea.
46. Baimenik gabeko ur-hartzeen inbentarioa egitea, bestelako aukerak garatzea eta ur hornidurarako zerbitzuak hobetzea.
47. Salaketa zorrotzak, ur-emari ekologikoak ez errespetatzeagatik.
48. Ura aurreztetik datozen emariak kontzesiotik libratzea.

5.3. Kalitateari dagokionez

49. Gune kutsagarriak kontrolatu eta haiei jarraipena egitea (industria, nekazaritza, basogintza...). Behar diren bitartekoak jartzea, isuri kutsagarriei buruzko araudia betearazteko.
50. Oso arrisksuak diren substantzia jakin batzuk isurtzeko debekua kontrolatzea.
51. Arrain-haztegietan ura kontrolatzea instalazioaren aurretik eta ondotik: emaria, azterketa fisiko-kimikoak.

5.4. Ibai-esparruari dagokionez

52. Eragin hidro-ekologikoari buruzko txostena eskatzea, hirigintza baimena eman baino lehen.
53. Plan guztietan emariak mantentzea eta ibaiaren jarraitasuna kontuan hartzea.

5.5. Erabilerei eta eskariei dagokienez

54. Ur hornidura bermatua egon dadin exijitzea, urbanizazio baimena eman baino lehen.
55. Jarduera sektore guztiak orekaz garatzea.
56. Baratze, baserri eta abarretarako ur erauzketak egokitu eta kontrolatzea. Kontagailuak paratzea. Ur horren erabilera ordaintzea.
57. Erabilera guztien kontsumoa kontrolatzea.

58. Hornidurarako Plan Zuzentzaileak proposatutako jarduketak berrikustea eta aukerabideak aztertzea, agorraldi luzeetan hornidura finkatzeko. Hona hemen aurreikusitako beharrekotako aukerabideak:

- Zentraletako azpiegiturak aprobetxatzea (ubideak, hodiak, etab.), ur hornidurarako.
- Akuifero batzuk aprobetxatzea; ura gordetzeko ur-biltegiak eraiki eta ur eskasia dagoenean erabiltzea.
- Suteei aurrea hartzeko baltsak eraikitzea; horrela, ez da xede horretarako hornidura urrik erabili beharko.
- Obrak kontrolatzea, azpiegiturak ongi eginda daudela, erabilgarriak direla eta haien estetika zaintzen dela bermatzeko.
- Gaur egungo urtegien aukerak berrikustea, ia urte osoan urrik gabe daudenak (Leurtzako 2., Mendaur).
- Erregulazio sistemaren bat eraikitzea, (aintzat hartzeko azken aukera gisa).
 - San Anton handitzea (behar izanez gero, baseliza tokiz aldatzea).
 - Urrozko urtegiak hornidurarako erabiltzea.
 - Zeberia errekan uraren erreserbatokia eraikitzea.
 - Urtegi txikiak, ez obra erraldoiak, etxebizitzetara eta inguruko lurri eraginik sortu gabe.
 - Epe luzeetarako balio duten urtegiak (50 urte).

59. Klima-aldaketa kontuan hartzen duten azterlan proiektiboak egitea.

6. HELBURUA | Sentsibilizazioa

60. Ingurumeneko boluntarioritza programa Ur Jabari Publikoaren Eremuan.
61. Eskolek bultzatutako programa, haurrak ibaia eta ibaiertzak zaindu beharrez kontzientziatzeko.
62. Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak eta programak egitea.
63. Informazio eta sentsibilizazio kanpainetan, istripuek eragindako arrastoen arazoa lantzea, bai eta arrastoak kontrolatu beharra ere.

Bidasoaren azpiarroaren prozesuan, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako sektore eta erakundeetako 60 lagunek parte hartu dute, lan talde eta kontsulta talde banatan antolatuta; era berean, egindako lanari lotutako informazio osoa jaso dute erreferentziazko erakundeek. Guztien elkarlanari esker, eta Nafarroako Gobernuak prestatu duen oinarritzko agiri teknikoa abiapuntu harturik, diagnosia egin da eta, era berean, neurri sorta bat proposatu da, gure inguruko ibaien eta erreken egoera ekologiko ona lortze aldera.

Lan taldea:

Tokiko administrazioa: Arantzako Udala, Baztango Udala, Berako Udala, Lesakako Udala, NARBARTKO Kontzejua.

Ekoizpen sektorea: Cederna-Garalur garapen agentzia, Bertizko Partzuergo Turistikoa, BKZ Nafarroa Abentura, EHNE sindikatua (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna), UAGN sindikatua (Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra), Marin zubiko zentral hidroelektrikoa.

Gizarte erakundeak: AEMS Ríos con vida (Nafarroa), Asociación Navarra de Pescadores a Mosca (ANAPAM), Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea, Urberri Elkartea, Iturri-Ederra Elkartea.

Adituak eta erabiltzaileak: Alejandro Arizkun, Aitor Bazterrika, José Ignacio Irusta, Monika Redondo.

Kontsulta taldea:

Tokiko administrazioa: Arantza, Baztan, Bertizarana, Bera, Doneztebe, Etxalar, Ituren, Lesaka, Saldias eta Sunbillako Udalak; Legasa eta NARBARTKO Kontzejua (Bertizarana); Almandoz, Arizkun, Arraioz eta Azpilkueta herriak (Baztan), Malerrekako Mankomunitatea.

Ekoizpen sektorea: ARCELOR, Marin zubiko zentral hidroelektrikoa, SAT Amairu, EHNE sindikatua (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna), UAGN sindikatua (Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra), Abeltzaintzako ITG, Doneztebeko merkatarien elkartea, Baztango Cederna-Garalur, Bortzirietako eta Malerrekako Cederna-Garalur. BKZ Nafarroa Abentura, Bertizko Partzuergo Turistikoa.

Gizarte erakundeak: AEMS Ríos con vida (Navarra), Baztango Ehiztari eta Arrantzaleen Elkartea, Asociación Navarra de Pescadores a Mosca (ANAPAM), Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea, Urberri Elkartea, Iturri-Ederra elkartea, Berako Toki Ona ikastetxeko Guraso Elkartea Berako Toki Ona BHI.

Adituak: Alejandro Arizkun (NUP), Raúl Bermejo (Nafarroako Unibertsitatea), Julia Ibarra (NUP), Víctor Peñas (Uraren Euskal Agentzia-Uragentzia), Lekarozko ILZ, Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra.

Erabiltzaileak: Juan Mari Alemán, Gabriel Errandonea, Gabriel Fuentes, José Ignacio Irusta, Mónica Redondo, Txetxu Salazar, Lander Santamaría, Arkaitz Vicente.

Argibideak:

Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa (CRANA)

agua@crana.org

www.crana.org

Web gune horretako **uraren atalean**, honi buruzko argibidea aurkituko duzu: legeria, Urari buruzko Esparru Zuzentaraua, baliabideak, Uraren Foroaren agiri teknikoak, praktika egokiak, estekak, albisteak...

Ingurumen Ministerioa

www.mma.es

Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoa

www.chnorte.es